



Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako...

• Joseba Sarrionandia •

Zenbait didaktika proposamen



- Argitaldetxea : Xangorin S. L. - 2010

- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



2014ko Mintza Lasairen kariatara Joseba Sarrionandiaren obra bat lantzea proposatzen dizuegu. Liburua istorio laburrez osatua dago. Lokaririk gabekoak direnez gero, irakasleak errexki erabil dezake bere klaseetan, ikasleen euskara mailari eta gustuei egokituz. Gai unibertsalak aipatuak dira : bizia, heriotza, haurrak ukan/erditzea, jendeekilako harremanak, sentipenak, edertasuna, sofrikarioa, erlatibitatea...

Obraren titulua ere probokazio hutsa da : "Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako... !" Irakurleak lehen xiskan pentsa lezake : "*Baina zer derasa honek mila debu ? Burutik badu, ala ?*". Eta liburua irakurri arau, ohartuko gara lelokeria galant honek ikaragarritzko seriosasuna daramala berez ! Gehiago dena umorea eta ironia ere hor daude.

Unibertsoko gauzei begira, pertzepzio ezberdinak dauzkagu eta batzuetan talkak gertatzen dira. Sarrionandiaren dohaina da, gogoetak dantzan-zirimolan jartzen dizkigula alegia eta deus ere, testo labur eta landu batzuen bidez. Idazleak ez digu nehondik ere "Egia" inposatu nahi, egia batzuk baizik ez baitira. Egiten, desegiten, berriz eraikitzen ariko gara etengabe hargin bagina bezalaxe.

Ustiapen didaktikoak proposatzen dizkizuegu :

- Ondoko webgunean : www.hikhasi.com
 - Hik Hasi-ren sar hitza.
(Hik Hasi : Euskal hezkuntzan diharduten irakasleen egitura)
 - Xabier Mendigurenen sar hitza.
 - Joseba Sarrionandiaren ohar batzuk, gako horiek baliosak izanen zaizkizu idazkiak lantzeko momentuan.
 - Lierni Altube margolariaren oharra.
 - Ipuin sailkapena haurren adinaren arabera.
- Dokumentu honetan berean AEKren eskutik.

Zuhaurek ere beste ideia batzuk izanen dituzu gainera.

2014ko Mintza Lasairen kariatara, hona hemen obra honi datxekizkion beste iharduera batzuk.

- Batetik Artedrama konpainiak eskaini antzerkia, klase denboran, (irailaren 26an, ortziralarekin, 09:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 16:00etara), Biarritzeko mediatekan, hurrei zuzendua.
- Bestetik Lierni Altuberen akuarela erakusketa, irailaren 2tik urriaren 31ra Biarritzeko mediatekan, hurrei zein helduei zuzendua.
- Ondotik zuhaurek bururatuko dituzun lanak zure klaseetan, izan dadin hurrekin ala helduekin.
- Eta bukatzeko BTZ Irakur Klub 2014ko urriaren 25ean, arratsaldeko 14:30ean, Biarritzeko mediatekan, helduei zuzendua.


Joseba Sarrionandiaren inguruan izanen den ekitaldi sorta honek Mintzalai astetik kanpo ere hedapen zerbait izanen du, hau da, Mintzalasai aitzin eta ondotik ere lanketa batzuk burura ditzakezu. Hautua, zure esku !

-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -
-



Biarritzeko Euskara bulegoak Sarrionandiaren obra zure eskolari eskaini dio. Orain : murgil zaitez, goxa eta gogoeta ... Ikus nola erabili ahalko duzun zure kurtsoetan, euskara ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi ibil dakigun. Ondoko asteetan eta urteetan ere ez ahantz altxor kutxa hau berriz irekitzea, haztatzea eta ustiatzea.

Izan direlako gara, garelako izango dira.



Joseba Sarrionandia

AURKIBIDEA

I/ Sagarroi istorio.

- 1.1/ Axular. (Dokumentu didaktiko honen 5, 6 eta 7. orrialdeak).
- 1.2/ Euskaltzaindia. (Dokumentu didaktiko honen 8, 9 eta 10. orrialdeak).
- 1.3/ Bernardo Atxaga. (Dokumentu didaktiko honen 11. orrialdea).
- 1.4/ Joseba Sarrionandia. ("Idazlea zeu zara..." obrako 46. orrialdea)
eta (Dokumentu didaktiko honen 12 eta 13 . orrialdeak).
- 1.5/ Beste (Dokumentu didaktiko honen 14 . orrialdea).

II/ Leiho istorio.

- 2.1/ René Magritte eta Lierni Altube. (Dokumentu didaktiko honen 15, 16, 17 eta 18. orrialdeak).
- 2.2/ Joseba Sarrionandia.
("Idazlea zeu zara..." obrako 13, 16 eta 17. orrialdeak).
(Dokumentu didaktiko honen 18. orrialdea).

III/ Sorgin etxearen bila, Behe Nafarroan gaindi.

Lanaren abiapuntua : ("Idazlea zeu zara..." obrako 30. eta 31. orrialdeak).
(Dokumentu didaktiko honen 19, 20, 21 eta 22. orrialdeak)

Jokoa Google map lagun :

http://www.cartesfrance.fr/carte-france-ville/64487_Saint-Just-Ibarre.html

IV/ Beste.

- 4.1/ Semaforoa. ("Idazlea zeu zara..." obrako 25. orrialdea).
- 4.2/ Eskua :
 - Eskuko hatzak : ("Idazlea zeu zara..." obrako 18. orrialdea).
 - Matematika kurtso filosofikoa Joseba Sarrionandia eta Lierni Altuberekin :
 - Hutsetik hamaikara : ("Idazlea zeu zara..." obrako 82. eta 83. orrialdeak).
 - 9 zenbakiaren biderketa ikasteko truko bat : ("Idazlea zeu zara..." obrako 83. orrialdea).
- 4.3/ Ideia batzuk :
 - Arte adierazpena (Dokumentu didaktiko honen 23. orrialdea).
 - Idatzizko adierazpena (Dokumentu didaktiko honen 23. orrialdea).
 - Ahozko adierazpena (Dokumentu didaktiko honen 23. orrialdea).


1/ SAGARROI ISTORIO

1.1 AXULAR

1.1.1/ Axular (1556 - 1644).

Pedro d'Agerre Axular Nafarroako Urdazubin sortu zen eta Lapurdiko Saran hil.

Apez izan zen eta euskal idazle handienetakoa. Hark idatzitako "Gero" liburua dugu euskal literaturako lan nagusietarik, batzuentzat euskara batua zehazteko balio ere izan duena. Liburua lapurtera klasikoan idatzia izan da.



1.1.2/ Axularren sagarroia. "Gero" liburua (1643) 6. kapitulua.

Jatorrizko idazkia (helduentzat - C1.3 maila).

"... Sagarroia, bere egitez ere nekez erditzen da, baina are, bere faltaz nekezago. Zeren nola larruan baita latz, eta gaztaina karloa bezala, puntaz eta arantzaz bethea, eta umeak ere bera bezala latzak, eta arantzetsuak baititu ; ume hek erdi behar duenean bere arantzeek, eta karloez min egiten diote, eta halatan minari errendaturik, erditzeko meneratzen denean, barrenat sartzeintu eta han ahal bezanbat edukitzeintu. Eta nola hala dadutzan bitartean ere, handitzen eta gogortzen baitira ume hek ; eta alabaiña erdi behar, edo hil : handik azkenean, harri baten kontra permaturik lehen eginen zen baino nekezago, eta penazago erditzen da..."

Moldaketa : euskara gaurkotuago batean (haurrentzat eta helduentzat).

Sagarroi ama, berez, nekez erditzen da, baina bere faltaz oraino nekezago. Larrua latz du, eta gaztaina karloa bezala puntaz eta arantzaz betea. Sagarroi umeek ere, amak bezalako larrua dute : latz eta xistaz betea ! Umeak sortzen direlarik amari min egiten diote, eta beren arantzengatik oraino gehiago ! Ez sofritzeko, erditu behar duen amak, umeak sabelaren barnean atxikitzen ditu ahal bezain luzaz. Anartean tipiak handituko dira amaren sabelean eta gogortuko ere. Eta azkenean amak erditu behar, ala bestenez hil beharko ! Azkenean harri baten kontra bermaturik erdituko da bai, baina ... lehen izanen zuen baino nekezago eta penazago !



- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



1.1.3/ Ataza.

● Haurrentzat (Irakaslearen gidoia) :

Ahozko adierazpena eta idatzizko ulermena

- Axular, nor da ? Aurkezpen laburra egin (Dokumentu didaktiko honen 5. orrialdea).
- Sagarroiaz zuek, haurrak, mintza zaitezte.

Nolakoa da ? Zer jaten du ? Non bizi da ? Jadanik batto ikusi ote duzue ?

Ikusi izanez gero, konda.


- Gaur ikusiko dugu sagarroi ama nola erditzen den. Axularren testoa doi bat korapilatsua da, beraz moldaketa tipi bat egina izan da, zuek errekiago irakurtzeko gisan.
- Irakurketa egin ondoren, hurrei galdegin zer ulertu duten.
- Nahi izanez gero, testoa ilustratuko duen marrazkia eginarazi.
- Lierni Altubek margotu sagarroiak begira itzazue : 2 animalia hauek nola ikusten dituzue ? Nolakoa harremana izanen dute, zure ustez ? ("Idazlea zeu zara, ..." obrako 46. orrialdea)
- Aldera itzazue zuen sagarroiak eta Liernirenak : zertan dira berdin, zertan ezberdin ?

● C 1.3 mailako helduentzat.

Idatzizko ulermena eta idatzizko adierazpena.

- Axularrez zer dakizue ? Aurkezpen laburra egin (Dokumentu didaktiko honen 5. orrialdea).
- Axularren jatorrizko testua eman, irakur dezaten.

- Ideiak berriz idatzi, gaur egungo euskaraz.




-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -
-



1.1.4/ Ataza

Axularrek, umeak munduratzeko behatu ninduen eta egia erran ez zitzaidan lagungarri izan garaian. Ba ote dakizu nik ere zelatatu nuela, bere joan-jin guztien berri banuen. Behin bere paropiara joan nintzen eta hara zer ikusi nuen Sarako elizaren ezkila dorreko horman :

Oren guziek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobirat egortzen.
- Jatorrizko idazkietan -



Batueraz :

Oren (ordu) guztiek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobira igortzen (bidaltzen).

Haurrentzako galdera :

Ahozko adierazpena.

● Adierazpen honekin ados ote zara ? Beste nolazpait erranik zure ustez egia ote ordu bakoitzak kolpatzen gaituela ? Zure erranak frogatzeko adibide zenbaitzutan oinarrituko zara.

Helduentzako galdera :

Ahozko adierazpena.

● Erran hau irakurtzean, zer gogoeta bururatzen zaizu ? Zure ustez bizitzaz ala heriotzaz zer ikuspegi dateke ?




1.2/ EUSKALTZAINDIA

1.2.1/ Euskaltzaindiaren sagarroia (Xarles Videgainek egin ikerketatik ateraia).

Ahozko adierazpena eta behatzea.

- Iharduera hau hasi baino bizpahiru egun lehenago, etxeko lana ikasleentzat :
"Hérison" nola erraten den galdegin ingurukoei (aitamei, aitatxi-amatxiri, auzoei, eskolako zaindariei...).
- Iharduera bera :
 - Kartak zer dira ? Noiz erabiltzen ditugu ? Zertarako dira ?
 - Ba omen da gizon bat Xarles izenekoa, karta arraroak egiten dituen. Garazitik Bilbora joateko adibidez, horrek egin karta ez zaizu baitezpada lagungarria izanen ! Hau bitxikeria, ez ?
 - Xarles Euskal Herrian zehar ibiltzen da euskalkiak ikertzen. Badakizu zer diren euskalkiak ? Euskaldunek hitz egiteko molde ezberdinak dituzte. Euskara hizkuntza da eta bere baitan mintzaira ezberdinak badira (euskalkiak ala dialektoak deitzen direnak). Euskararen barnean gipuzkera, bizkaiera, lapurtera, nafarrerak, zuberera dauzkagu.



-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -
-



- Xarlesek jendeen mintzamoldeak grabatzen ditu. Ondotik bildu informazioak numerizatzen ditu eta hizkuntz kartak egiten ditu. Beste nolazpait erranik, mapan agertzen da hitz baten erabilpen geografikoa, hots, zerbait adierazteko eremu honetan hitz hau erabiltzen da eta ondoko eskualdean, berriz, beste bat.

- Behako bat botako diogu *11. orriko* kartari eta horretan agertuko zaizu sagarroiaren izen ezberdinak.

1.2.2/ XARLES VIDEGAIN : biografia.


Hizkuntzalaria da, unibertsitate irakasle eta euskaltzaina. 1947an sortu zen Baionan.

Tolosa Okzitaniako Unibertsitatean izan zituen irakasleen artean Jacques Allièresek utzi zion eraginik handiena eta Videgainek bere zuzendaritzapean egin zuen lehen ikerketa lana, 1982an.

Irakaskuntzan eman zituen lehen urteak Baionako ikastetxe batean eta IKAS elkartean idazkari izan zen.

1982tik euskaltzain urgazle izendatu zuten ; lan garrantzitsu askotan parte hartu izan du, Euskal Herriko Hizkuntza Atlasean edota Euskararen Herri Hizkeren Atlasean besteak beste. 2006tik euskaltzain osoa izateko proposatua, 2009an euskaltzain emeritu bihurtutako Txomin Peillenen lekua hartu zuen. Akademian ere ikergai nagusia izan den ahozko euskararen ikerketan sakontzen aritzeko asmoa erakutsi zuen.


2010etik landa argitaratzen ari den Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean (EHHA-ean) aritzen da buru belarri ikerketa lanetan.





177. Mapa: erizo / hérisson / hedgehog / (*Erinaceus europaeus*)



GALDERA: 06010



	sagarroi
	sagarretroi
	saarroi
	saargoi
	saardoi
	sarrobi
	xagarroi
	xarrobi
	zagarro
	triku
	kirikiño
	kirikolatz
	kirikiñolatz
	kirikiolatatz
	kirikilolatz
	kirikiñijo

Leioa: kirikilolatz oso arin emana da. Zalanitzako transkribaketa.
Bakio: Remolabatx e xaten ikusi ot nik iños. Iños narrie kendüte xan be in dñs olangoak...
Leintz Gatzaga: Onek ostuak batzē(n) (d)itue; pillo aundixak e(g) ite(n) (d)itue da an barruen gorakētan dē(r)ē.
Elgoibar: lekuko batek triki eman du, eta honen adiskide batek, gurasoak Elgoibarko mendebaldeko auzo batekoak dituenak, kirikiñi.
Hondarrabia: ez da galdetu, baina inkesta osagarrian jakin dugunez "triku" da herrian erabiltzen dena.
Eugi: Sagarrak ebasten diñu: pinxoak sartu sagarrari ta bizkarrean kafira eramaten di.

Uztaritze: sajiu -hots, belarea- eta sagarroia bildu dira, bigarrena ekarri da mapara.
Urketa: Bada bi kalitate, batek zakur muturra u eta bezek urde muturra. Urdemuturra jaten da, zakarmuturra ez.



- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -



- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -




1.3 ATXAGA

1.3.1/ Atxagaren biografia.

Gipuzkoarra da Tolosaldekoa eta 1951n sortu zen. Euskal idazle hau Euskal Herrian ez ezik, munduan ere ezaguna da. Bere obra batzuk hizkuntza ezberdinetara itzuliak izan dira. Eleberriak, ipuinak, saiakerak, olerkiak idazten ditu, helduentzat zein haurrentzat. 2007az geroztik euskaltzain da.

Obrak : *Behi euskaldun baten memoriak, Obabakoak, Gizona bere bakardadean, Groenlandiako lezioa, Xola eta Angelito...*



1.3.2/ Atxagaren sagarroia (zattia).

*"Esnatu da trikua habi hosto lehorrez egindakoan,
eta dakizkien hitz guztiak ekartzen ditu gogora ;
gutxi gora behera, aditzak barne, hogeita zazpi hitz."*

Eta gero pentsatzen du : Amaitu da negua,
Ni trikua naiz, Bi sapelaitz gora dabilta hegaletan;
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Zein putzu edo zulotan ezkututzen zarete?
Hor dago erreka, Hau da nire erresuma, Goseak nago.

Eta berriro dio: Hau da nire erresuma, Goseak nago,
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Zein putzu edo zulotan ezkututzen zarete ?
.../...

Marraskilo (barraskilo = karakoil = bare-kurkuilu = barakuilu) - Zomorro (bestiola)

1.3.3/ Ataza.

Ahozko adierazpena eta olerkia gogoz ikasi.

- Olerkia irakurri baino lehen :
 - Sagarroia etxea nolakoa da zure ustez ?
 - Bere ohea deskribatu ?
 - Zer jaten du ?
 - Eguna nola pasatzen du ?
 - Erregea zer da ?
 - Errege batzuk izendatu.
 - Erregeak zer manatzen zuen lehen : errepublika ? Erresuma ? Inperioa ? Eskualde bat ? Baiona ?...
- Olerkia irakurri eta :
 - Poema lehenagotik errana izan denarekin konforme denez ikusi.
 - Sagarroia hau errege ote da bere erresuman ?
- Nahi izanez gero, gogoz ikasarazi datorren klaserako.

- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -




1.4/ JOSEBA SARRIONANDIA URIBELARREA

1.4.1/ Joseba Sarrionandiaren biografia.

Joseba Sarrionandia 1958an sortu zen Bizkaiko Iurretan, Durangaldean. Euskal idazle famatuenetariko bat da. Idazle da baita ere hizkuntzalari. Olerki eta narrazio laburren hainbat liburu idatzi ditu, baita eleberri batzuk ere.

1985az geroztik erbestuan bizi da.

Honen euskarazko obrak itzuli eta itzultzen dira hizkuntza ezberdinetara. Joseba Sarrionandiaren poema frango euskal kantariak (Mikel Laboak eta Ruper Ordorikak besteak beste) abesten dituzte.



Obra batzuk :

- Izuen gordelekuetan barrena.
- Intxaur azal baten barruan. Eguberri amarauna.
- Alkohola poemak.
- Marinel zaharrak.
- Gartzelako poemak
- Narrazio guztiak
- Ainhoaren gutunak

1.4.2/ Amodio harremanak - Berri laburra.

("Idazlea zeu zara..." obrako 46. orrialdean, jatorrizko testua badaukazu). Azpian bertsiotutako moldatua atzemanen duzu.

"Jendeen arteko amodio harremanak ez dira beti errexak" esan nuen.

"Kirikiñoen arteko amodio harremanak bezalakoak dira batzuetan, ezta ?" erdi berretsi zuen, erdi galdegin zidan umeak.

"Zer dakizu zuk, nolakoak diren kirikiñoen arteko amodio harremanak ?".

"Ez dakit nolakoak diren, baina imajinatzen ditut..."

"Nolakoak imajinatzen dituzu ?"

"Ba, batek esango du MAITE ZAITUT, AI, OI, AI, AI ... eta beste kirikiñoak erantzungo dio BAI, AI, NIK ERE BAI, OI, AI, AI, AI..."

"Nola dakizu hori ?" galdetu nion harriturik.

"Ez dakit, susmoa da, besterik gabe." esan zuen umeak. "Ez dut kirikiñoa nehoiz ere ikusi, liburuetan eta dokumentaletan ez bada, baina, arantza puntadun horiekin, halakoak susmatzen dut izango direla kirikiñoen arteko amodio harremanak..."

Amodio harremanak

-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -



1.4.3/ Atazak.

- **Haurrentzat** : testua irakurri ondoren galderak erantzun.

Idatzizko ulermena eta ahozko adierazpena.

- Elkarrizketan nor da mintzo ?
- Kirikino emeak eta kirikino arrak amodioa egin nahi dutelarik, zer arazo daukate ?
- Haurrak kirikinorik errealki ikusi ote du kanpoan ?
- Haurraren erantzunak entzutean, zure ustez heldua nola senditzen da ?
- Jendeen arteko amodio harremanak, errexak ote dira ?
- Maite duzun pertsona bati min egiten ahal ote diozu ? Adibide bat baldin baduzu kontatu ezazu.
- Norbaiti min egiten diogunean, ohartzen ote gara beti ?
- Pertsona bati, min egin baldin badiogu, zer egin dezakegu honen mina jabaltzeko ?
- "Amoros izan" nola adieraz daiteke hori beste nolazpait erranik ?
(Erantzuna "Maitemindua izan")
- "Maitemindua " : hitz horren adiera 2 hitzek osatzen dute. Zeintzuek ?
(**Erantzuna** : MAITE + MIN-DU). Txanponaren, ala hobeki erranik, amodioaren bi aldeak agertzen zaizkigu hitzean. Amodioa ez da beti errexa ala liluragarria, sofrikario zerbait izaten delako goiz ala berant).

- **Helduentzat** : testua irakurri ondoren galderak erantzun.

Idatzizko ulermena eta ahozko adierazpena.

Euskara mailaren arabera jatorrizko bertsioa ("Idazlea zeu zara ..." obrako 46. orrialdea).
Ala bertsio moldatua dokumentu didaktiko honen 12. orrialdekoa hauta.

- Nor da mintzo ?
- Zertaz hitz egiten dute ?
- Haurrak zergatik alderatzen ditu kirikinoen amodio harremanak eta jendeekilakoak.
- Haurraren erantzunak entzutean, heldua nola gelditu da ?
- Haurra, espirituz nolakoa da ?

1.5/ BESTE

Ahozko adierazpena.


Marrazki bat hautatu ondoren istorioa asma, proposatu zaizun erranaldia txertatuz. Ondotik pasadizioa besteei kondatu.




1/ Arrosa arantzaz beterik denez gero ez dio eskainitako lorea hartu nahi.



2/ Aitaxiren baratzeko lore guziak ebasten zituen eta bere etxea lili sortaz apaintzen.




3/ Fruitu denda hartan saltzailea sagarroia zen.



4/ Erditzeak min egiten duenez gero erabaki du engoitik umerik ez izatea.



5/ Ostatu hartan sagarroia beti kikera berean kokatzen zen... tabernariak ez zekien gehiago zer egin.



6/ Aitamak ados ez izan arren sagarroi hau altxatuko dut goiko garbigelan edo garajean.

-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -
-



II LEIHO ISTORIO

2.1/ René Magritte.

René Magritte

(1898 - 1967)

Surrealismo mugimendu artistikoa



- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



2.1.1/ René Magritten biografia.

René Magritte (1898-1967) Belgikarra zen, Surrealismo izeneko intelektual mugimenduan murgildua.

Surrealismo eskola hori lehen Munduko Gerratik landa Frantzian sortu mugimendu literarioa, artistikoa eta filosofikoa zen, mendebaldeko zibilizazioaren pentsamolde, ordena eta konbentzioak irauliz, mundu-ikuskerari berri bat proposatzen zuena.

Pertsonaiek, espazioak eta giroak errealitateatik at garamatzate. Gauza errealistak margotzen ditu molde irrealistan.

(**Ezagun batzuk** : A. Breton, L. Aragon, S. Dalí, J. Mirò, R. Magritte...).



2.1.2/ Lierni Altube nor da ?

Andere hau Oñatiarra da (Gipuzkoarra). Ofizioz arkitekto da, eta bere denbora librean margotzen du. Garai batez Baxe Nafarroan iragaten zituen aste hondarrak eta oporrak. Euskal Herrian lan egiten du, Hegoaldean zein Iparraldean. Lan harremanak euskaraz atxikitzen ditu ahal bezainbat euskaltzaile honek.

"Idazlea zeu zara..." literatura obrako testo gehien-gehienak irudikatu ditu.

2.1.3/ Ataza.

Arte adierazpena eta ahozko adierazpena.

Irakasleak Magritteren margoa hurrei deskribatuko die ahoz (dokumentu didaktiko honen 15. orrialdea) eta azken hauek margo bat egin beharko dute. Ondotik beren obra eta Magritterena alderatuko dituzte.

Ahozko adierazpena.

Magritteren margoa erakutsi eta horretaz mintzarazi.

● Deskribapena.

- Hiruzangoko baten gainean margo bat badago, etxe baten leihoaren aitzinean finkaturik.

- "*Margoko paisaia, "irrealista" konsidera dezakeguna leihoaren bestaldean den paisaiarekin nahasi egiten da, hots, paisaia "erreal"arekin, ala errealtzat har dezakegunarekin.*"

● Erantzun proposamena.

Gure pertzepzioez gogoetaratuzera bultzatzen gaitu Magrittek, irrealia dena errealtzat har dezakegu eta alderantziz ere bai. Zenbaitetan bi mundu hauen arteko zedarrak finkatzea ezinezkoa da edo zaila izan dakiguke, gure pertzepzioen edo subjektibitatearen preso baikaude.

- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



2.1.4/ Ataza ("Idazlea zeu zara ..." obrako 13. orrialdea).

Ahozko adierazpena.

- Leihoak zertarako dira ?
- Leihoak zerratuak ikusten dituzunean, zer eragiten dizu ?
- Toribio Altzagaren errana ozenki irakurri eta gogoetatu. Zein leiho mota aipatzen digu ?

2.1.5/ Ataza ("Idazlea zeu zara ..." obrako 17. orrialdea).

- Prozedura 1 : ("Idazlea zeu zara ..." obrako 17. orrialdea).

Ahozko adierazpena.

Ikasleei margoan ikusten dutena deskribarazi ahal bezain zehatz.

- Prozedura 2 : ("Idazlea zeu zara ..." obrako 17. orrialdea).

Entzunezkoaren ulermena, arte eta ahozko adierazpena.

- Irakasleak Lierniren margoa deskribatuko die ikasleei, entzun dutena ilustratu beharko dute marrazki ala margo baten bidez.
- Ondotik ikasleek eta Leri Altubek egin obra artistikoak parekatu dituzte.

- Prozedura 3 : ("Idazlea zeu zara ..." obrako 17. orrialdea).
(Dokumentu didaktiko honen 7. orrialdea).

Ahozko adierazpena.

- Lierni Altuberen margoa eta Magritterena parekatu.
- Erantzun proposamenak.
A - Lierni Altube eta Magritteren margoen arteko aldeak :

Lierni Altuberen obra artistikoa "Idazlea zeu zara ..." 17. orria	René Magritten obra artistikoa Dokumentu didaktika honen 15. orria
<ul style="list-style-type: none"> - Eguzkia badago. - Margolaria agertzen da. - Margoa ez da oraindik bururatua. - Leiho "irreal", neskak baitu margotu. <p>- Eguzkiak nahasketa sortzen du gure baitan : "irreal" a da alde batetik (neskak margotzen baitu horman) eta "erreal" bestetik (iduritzen baitzaigu hori dakusagula leiho "fiktibo"-z harandian) .</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eguzkirik ez. - Margolaria ez da ikusten. - Margoa bururatua da. - Leiho "erreal"tzat har dezakegu, gauden etxeke leihoa baita. <p>- Paisaiak nahasketa eragiten digu. Margoko pasaia "irreal"tzat har dezakegu (margoan baita) alde batetik eta "erreal"tzat ere ("egiazko ala kanpoko" paisaiarekin nahasten baita).</p>

-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



B - Lierni Altube eta Magritteren margoen arteko antzekotasunak :
(Helduentzat, haurrentzat agian zailegia) :

B.1 - Leihoak kanpoko mundua begiratzeko eginak dira, eta denbora berean izakiaren barneko unibertsoa. Barnekoa eta kanpokoak etengabeko elkarreraginean daude : kanpokoak eragina du behatzailearengan eta adi denak kanpokoak ikusten du bere begilagunen (ala pertzepzioen) arabera. Mireslerik gabe kanpokoak ez litzateke deus eta alderantziz ere.

B.2 - Pertzepzioen mugak eta magia.

Mugak, batzuetan hauen preso baikara, "irreal" errealizat daukagula eta "erreal" "irreal"tzat. Hein berean pertzepzioek badute zenbaitetan alde magikoa ere "errealitate"tik harantzago garamatzatelako ala... ikusten ez dena suma dezakegulako, parte bat ala osoki.

2.2/ Joseba Sarrionandia

- Amamaren leihoa. ("Idazlea zeu zara ..." obrako 21. orrialdea).

Ahozko adierazpena eta idatzizko ulermena.

● Testoa irakurri baino lehen.

- Leihotik behatzea gustukoa ote duzu ?
- Zure amama ala aitatzirekin ontsa moldatzen zara ?
- Nolakoak dira ? Deskribatu (fisikoki eta izaeraz ere).
- Urdina zer da ?
- Ikasgelan gauza urdinak harrapatu (Motrizitatea).
- Gauza urdinak izendatu.
- Ile urdina zer da ?

Haurrek ez baldin badakite erantzuna eman. Ile urdina = ile gris arina.

● Joseba Sarrionandiaren testoa irakurri.

- Haur honen amamak zer usaia du ?
 - Arrahaurrari, amamarekin egotea gustatzen ote zaio ?
- Testoan, zerk adierazten dizu hau ?
- Haurraren aitamek nola ikusten dute amama ?
 - Amamaren sekretua zer da, zure ustez ?
 - Zure iduriko amama hau burutik joana dea ?



Amatxi bat, Ramiro Arrueren margo batean agertzen

-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -



III - BEHE NAFARROAN GAINDI SORGIN ETXEAREN BILA Google Map lagun.

3.1/ Lierni Altubereren ilustrazioa behatu.
("Idazlea zeu zara..." obrako 31. orrialdea).

Ahozko adierazpena.

- Marrazkia deskribatu : etxea eta inguruak.
- Honelako etxean bizi nahi zenuke ? Zergatik ?
Zer sendi duzu ? (Ahalaz haurrak emozioez mintzarazi : lasaitasuna, urduritasuna...).



3.2/ "Gaueko jendea" deritzon testuaren lanketa klasean.
("Idazlea zeu zara..." obrako 30. orrialdea).

Idatzizko ulermena eta ahazko adierazpena.

- Testua irakurri baino lehen.
 - Bidean auto anitz ezin aitzinatuz ezin gibelatuz ari direnean, nola dago jendea ?
 - Gertatu zaizue, kondatu nora abiatzen zinen eta norekin ?
 - Zure ustez, airean hegazkinek eta helikopteroek autoen problematika bera izan dezakete ?
 - Guardia Zibila zer den azaldu haurrei.
 - Sarrionandiak aireko trafikoa aipatuko digu istorio honetan.
- Testua irakurri ondoren
 - Narratzailea goiz oheratzen ote da, zure ustez ?
 - Zer arazo izan du Andre Isabel sorginak?
 - Zuk zer nahiago duzu aire trafikoa ala lurrekkoa (bideetakoa) ?

3.3/ Orain proposatzen dizuegu Maddi, Teresa eta Ixabel Andre sorginen etxea aurkitzea, internet baliatuz.

Kasu egin ezazue, etxe hau margotu egunean, Lierni Altube zinez presatua zebilen. Hori dela eta xehetasun zenbait ahantzi zitzaizkion.

3.4/ Zein herritan da etxea ? (Helduentzat. Haurrei berriz, herriaren izena zuzenki jakinaraziko zaie).

- Pistak :
 - Baxe Nafarroan da.
 - Herri tipi hau Oztibarreko eskualdean da.
 - Tokiko frantses kolegio katolikoak saildu baten izena hartu zuen.
 - 2014ko udan gazte batzuek eskola okupatu zuten, gune kulturala muntatu nahiz. Kanporatuak izan ziren, lekua ilegalki okupatzeagatik.
- Erantzunak :
 - Herria Donaixti edo Ibarre (Saint Just Ibarre) da.
 - Horko saildua Mixel Garikoitz saildua zen.

-
- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
 - Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
 - Zenbait didaktika proposamen -
 - 2014ko Mintza Lasai -



-
- Ondotik azpiko loturara zoaz :

http://www.cartesfrance.fr/carte-france-ville/64487_Saint-Just-Ibarre.html

Erne ibili eta ez bide bazterretik gehiegi urrundu. Ez ahantz etxeak alderdi ezberdinetatik begiratzea : mugimenduen arabera ikuspegi ezberdinak agertuko zaizkizu eta hauen arabera xehetasun batzuk agertuko ala desagertuko dira.

- Pistak :

- Etxea Donaixti Ibarreko bide nagusiaren bazterrean kokatua dago.
- Ez da herriko auzo batean kokatzen, baizik eta herri barnean.
- Etxea handia da, aitzinaldean 5 leiho ditu.
- Etxeari bi parte gehituak izan zaizkio, bata ezkerrean eta bestea eskuinean.
- Argazkian 2 ate ikus daitezke, bata aitzinean eta bestea bazterrean
- Teilatutik 2 tximinia jalgitzen dira eta hor berean telebista hagak ikus ditzakegu.
- Teilatuaren azpian irekidurak badira : 3 orotara.
- Etxearen aitzinean 2 panel emanak dira bide bazterrean.
- Arroza liranjak ikus ditzakegu, gutunontzitik hurbil.
- Gibelediko mendiek pasaia ederra eskaintzen digute.
- Autoa ez dute garajea sartu.
- Portale bat irekirik dago eta bestea berriz hetsirik.
- Etxetik hurbil oinezkoentzako pasabideak badira bidean, erdi ezabaturik.

Xehetasun guzti hauek dituen etxea aurkitu baldin baduzu, eskuzarta bero bat zuretako !

● Bukatzeko ba ote dakizu Lierni Altube hor bizi izan dela eta Maddi, Teresa eta Ixabel Andre sorginen hegaladiak behatzen zituela eta hauen solasak entzuten ? Sorginak kexatu omen zitzaizkion gau beltz eta ilun batez eta etxetik kanporatu zuten. Hori diote bederen Donaixtiarrek. Agian Lierni Biarritzeko mediatekan ikusiko duzu eta hor galdegin ahalko diozu hori guztia egia denez.

● **Miarritzeko haur eskolentzat, 2014-2015 ikasturterako :**

Lehendabizi "Google Map"eko argazkia inprima ezazu, eta ondotik orri xuri batean "Sorginen Etxea" margo.

Eginbeharra bete ondoren dena igorri helbide honetara :

AEK - Jules Ferry karrika 9 bis - 64 200 Biarritze

Erantzuna zuzena izanez gero, eta marrazkia ederki eginez gero, opari tipi bat izanen duzu.



- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



● Erantzunak (irakaslearentzat) :



- Etxea Donaixti Ibarre herri barneko Karrika Nagusian (D 918) kokatzen da.
- Gibelesko mendiek paisai ederra eskaintzen dute.
- Portale bat idekirik da (gaineko argazkian) eta bestea aldiz hetsia (behereko argazkian).



- Oinezko pasabidea (zebra) ikusten da, erdi ezabatua.
- Autoa ez dute garajejan sartu.



- Etxe handia da, aitzinaldean 5 leiho dituena
- 2 ate ikus daitezke ere, bata aitzinaldean eta bestea bazterrean.
- Etxeari 2 parte gehituak izan zaizkio.
- 2 tximinia izaten dira eta bakoitzak telebista haga du.
- Teilatuaren azpian idekidura tipiak dira, 3 orotara.

- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



- Etxearen aitzinean 2 panel emanak dira bide bazterrean.
- Arrosa liranjak ikus daitezke gutunontziaren gibelan.



**Lierni Altube Donaixti Ibarreko
"Sorgin etxe"aren atarian,
hots Iturraldea etxearen aitzinean**

- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Zenbait didaktika proposamen -
- 2014ko Mintza Lasai -



IV BESTE

4.1/ Semaforoa. ("Idazlea zeu zara..." obrako 25. orrialdea).

Prozedurarik proposatua ez zaizun arren klaseratzea merezi duen testua.

Idatzizko ulermena.


4.2/ Eskua :

- Eskuko hatzak.

("Idazlea zeu zara..." obrako 18. orrialdea).

Prozedurarik proposatua ez zaizun arren klaseratzea merezi duen testua.

Idatzizko ulermena.



- Matematika kurtso filosofikoa Joseba Sarrionandia eta Lierni Altuberekin.

- Hutsetik hamaikara.

("Idazlea zeu zara..." obrako 82. orrialdea).

Prozedurarik proposatua ez zaizun arren klaseetan lantzea merezi duen testua.

Idatzizko ulermena.

- 9-ren biderketa ikasteko truko bat.

("Idazlea zeu zara..." obrako 83. orrialdea)

Lierni Altuberen margoa behatu.

Trukoa asmatzen entseatu.

Ataza :

3 x 9 karkulatuko dugu.

Bi eskuak zabalik aitzinean eman, ezkerreko eskuan hirugarren hatza beheiti.

Trukoa zer da ?

Haurrek atxematen ez baldin badute : erhiak begiratu, non dira hamarrekoak ?

Eta non dira unitateak ?

Erantzuna :

3 X 9 kalkulatzeko : erhi plegatuaren ezkerrean hamarrekoak izanen dira eta eskuinean, berriz, unitateak.

Beheiti den erhiaren ezkerrean 2 hatz direnez gero ($2 \times 10 = 20$) + eri plegatuaren bestaldetik 7 hatz, beraz 7 unitate ($7 \times 1 = 7$).

Bukatzeko hamarrekoak eta unitateak gehitu = $\underline{20} + \underline{7} = \underline{27}$



Oharra : markurtua dagoen hatza, ez dugu sekulan kontatu behar,

ez hamarretarako, ezta unitateetarako ! Hamarretako eta unitateen arteko bereizketa egiteko baizik ez du balio !

4.3/ Ideia zenbait :

- **Entzunezko ala irakurmenezko ulermena + arte adierazpena.**

Sarrionandiaren testua landu eta ondotik ikasleei irudikatzea eskatuko zaie, bakarka zein taldeka.

- **Idatzizko adierazpena eta idatzizkoaren ulermena.**

Lierniren margo batetik abiatuz, testua idaztarazi taldeka. Ondotik Sarrionandiarena jorratuko da. Nahi izanez gero, bi idazkiak konparatu.

- **Ahozko adierazpena.**

Akuarel batetik edota testu batetik abiatuz, jendea mintzarazi.



1- Sagarroia



2 - Leioa



3 - Sorgina



- Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako -
- Joseba Sarrionandia - Argitaletxea : Xangorin S.L. - 2010 -
- Didaktika proposamen zenbaitzuk -
- 2014ko Mintzalasai -

